

## **KONTROL MOZIOA**

### **MANTEOK DUEN MANTENTZE-DEFIZITAREN INGURUAN**

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Manteoren mantentze-defizitaren gaineko **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du, Zerbitzu Publikoen Batzordeak 2026ko urtarrilaren 15ean izan zuen bileran aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

## **JUSTIFIKAZIOA**

2025eko martxoan, Manteoko bizilagunek hainbat kexa aurkeztu zituzten gobernu taldeari, auzoak zituen mantentze-gabezia batzuk zirela eta. Duela gutxiago, zehazki 2025eko azaroan, beste idazki bat aurkeztu eta puntu hauek aipatu zituzten:

- Frontoiaren eta haur-parkearen mantentze-falta. Salaketa horretan, goiko kirol-zelaira igotzeko eskaileren barandaren egoera eta horrek duen arriskua aipatu zituzten. Era berean, adierazi zuten gero eta lausa solte eta erori gehiago daudela, eta horiek ere arriskua sortzen dutela.
- Gabeziak argiztapenean. Argiztapen-ekasua ikusita, parkearen inguruko argi-instalazioa indartzeko eskatu dute.

Laburbilduz, mantentze-lanak hobetzeko jarduketak txikiak dira, baina, hala ere, bizilagunei hiri-ingurunea hobetuko liekete, era horretan, ingurune hori seguruagoa eta bizigarriagoa ere izan dadin.

Hala eta guztiz ere, bizilagunek jakinarazi digutenez, salaketak eta kexak behin eta berriz sartu arren, ez dute haiek nahi zuten ondorioz lortu oraindik.

Udal gobernuari horren gainean galdetu eta Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkariak erantzun zigun kantxetan eta frontoian 2025eko ekainean egin zituztela instalazioaren egoeraren hainbat akats konpontzeko lan espezifiko batzuk. Horren segidan, zera ere esan zuten: "lan horiek erakusten dute orain dela gutxi egin direla pilotalekuari kasu egiteko eta instalazioaren segurtasuna eta egoera orokorra hobetzeko esku-hartzeak".

Udal gobernuaren ordezkariak adierazitakoaren juzkurik egiten hasi gabe, egia dena da frontoira bisita txiki bat egitea nahikoa dela ikusteko han "egindako jarduketak" ez direla aski frontoia eta goiko kantxetara igotzeko barandak izan behar duten segurtasun-egoera berreskuratzeko. Azken erori diren lauzei eta salatutako inguruaren egoerari begiratu besterik ez dago hori ikusteko.

Hori dela eta, hauxe da gure **KONTROL MOZIOA**:

1.- Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio udal-zerbitzu teknikoei agintzeko begiratzeko Manteoko goiko kantxetara igotzeko barandak eta frontoiko lauzak seguru dauden, eta konpontzeko haiek gero, izan behar diren segurtasun-ratioak izan ditzaten.

2.- Era berean, udal gobernuari eskatzen dio begiratzeko zein den "Manteoko parke ingurua" esaten dioten lekuaren argiztapena handitzeko modurik onena.

3.- Azkenik, udal gobernuari eskatzen dio Manteon egin behar dituzten lanen eta haiek egiteko pentsatzen duten denboraren jakinaren gainean edukitzeko beti hango bizilagunak.

Donostian, 2026ko urtarrilaren 23an

Ricardo Burutaran Ferré  
**EH BILDU udal taldeko zinegotzia**